



## Balorezko proposamena

Zugaz aplikazioa erabiltzearekin, bullying arazoa ekiditzen saiatuko da jendea lehenik eta behin. Bigarrenik, aplikazioaren beste helburu garrantzitsu bat, eskoletan gertatzen diren bullying arazoak konpontzea da. Horretarako, eskoletako zuzendariak aplikazioa erabil dezakete informazioa biltzeko eta gertatutako arazoak modu egokian zuzentzeko. Zugaz beste aplikazioetatik bereizten duena da, izen ezezagun batekin aurkezten denez, prezioa zehaztuta ez dagoela. Aplikazioa deskargatzerako momentuan dohainik dela jarriko du, hasiera batean inork ere ez ezagutzen gaituelako. Horregatik, gure ikuspuntutik, Zugaz, bullyinga ekiditzeko aplikazioen barnean, oso aukera ona izango dela uste dugu. Prezioa alde batera usten, egindako diseinua oso erakargarria da.

Diseinua egiterakoan, gaur egun gazteek erabiltzen dituzten app-en diseinuetan oinarritu gara. Horrek, gure aldeko puntuak gehitzen ditu. App-a berria denez, besteekin konparatuz diseinua askoz erakargarriagoa izan arren, erabiltzeko errazagoa izango da baita.

Lehiakideengatik bereizten gaituen gauzetan, berritasuna eta prestazioak ere aipa ditzakegu. Honekin esan nahi duguna da, Zugaz berria denez merkatuan eskaintzen dituen prestazioak hobekak direla. Eskaintzen ditugun prestazioak berritsuak dira eta horrek, jendea asko erakartzen du, ez bakarrik berritasunagatik, baizik eta berritasunaren esan nahiarekin. Hau da, gero eta app berriago bat sortu orduan eta informazio eguneratuagoa izango du.

Gure aplikazioa erabiltzearekin, lana erraztea espero dugu. Lana erraztearekin esan nahi duguna da, gure aplikazioaren barnean informazio gehiago sartzen saiatu gara, gero informazioa beste lekuetan ez biltzeko.

Gure marka ezezaguna denez, badakigu hasieran ez dutela pertsona asko deskargatuko, baina eskaintako prestazioak kontuan hartuta, gero eta jende gehiago ezagutuko du gure aplikazioa eta horrekin batera, lehiakideenganako lehia gero eta baxuagoa izango da.

